

Erantzuna, Pasaia alkateari <sup>Zbk</sup> <sup>2958</sup> helarazitako eskaera-idazkiari

Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak eman duen informazioaren arabera, honako hau adierazten dizut:

Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoa lurraldeko mankomunitate guztiek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak osatzen dute; eta lurraldeko hondakinen tratamendurako lehenengo mailako kudeaketaz arduratzen da. Hau da, Partzuergoak jarduketa eta azpiegitura guztiak kudeatzen ditu, mankomunitateek hondakinak transferentzia-estazioetan utzi ondoren.

Mankomunitateek, Partzuergoaren batzar orokorreko kide izanik, Partzuergoari tarifa bat ordaintzen diote jasotzen duten zerbitzuagatik, eta ondoren mankomunitate bakoitza arduratzen da udalerrri bakoitzari kobratzeaz. Tarifa hori Partzuergoko kideek, mankomunitateek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak onartzen dute, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoaren batzarrean.

Bestalde, komeni da zehaztea aurreko gobernuaren kudeaketak eragindako galera ekonomikoak eta zulo ekonomikoak ekarri dutela Gipuzkoak hasieran aurreikusitako kudeaketa aldatu behar izatea, kudeaketa zuzenetik zeharkako kudeaketa-eredu batera pasatzea, alegia.

Horrela, zuzenean kudeatzeko ezintasuna dela-eta, enpresen aldi baterako elkarte emakidadun batek hartu du bere gain Gipuzkoako Ingurumen Zentroaren inbertsioa (balorizazio energetikorako planta bat, eta tratamendu mekaniko biologikorako planta bat). Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak 23,6 milioi euroko kanona ordainduko du urtero, kontratuak indarrean dirauen bitartean, hau da, 32 urtez.

Horren bidez, hondakinekin dugun arazoa behin betiko konpontzeaz gain, Partzuergoak egun urtero-urtero jasan behar duen gastua nabarmen murriztuko da (egun gastua 37 milioi eurokoa da).

Galderak:

1. Zuk zuzentzen duzun udalak jendaurreko egintza batean adostu al du kontratu hori onartzea edo ezestea?

San Marko Mankomunitateko kide gara, eta mankomunitateak Partzuergoko gainerako kide guztiekin batera onartu zuen batzarrean Gipuzkoako Ingurumen Zentroaren esleipena.

2.- *Eztabaida edo akordiorik izan bada, kontratu horrek herritarrentzat eta udalarentzat izango dituen ondorio larriak onartzeko edo errefusatzeko, zer jarrera hartu dute udal horretako partidu eta ordezkari politikoek gai larri horri dagokionez?*

Udalak errespetatu egiten ditu mankomunitateek, Hondakinen Partzuergoaren Batzar Orokorreko kide bezala, hondakin-kudeaketaren arazoa konpontzeko demokratikoki hartutako erabakiak; indarrean dagoen araudia eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek behin eta berriz emandako aginduak betez.

3.- *Udalak herritarrei ohartarazi al die prentsaren bidez edo beste era batera 2051. urtera arte lotuko dituen kontratu horren ondorioez eta xehetasunez?*

Hondakinak biltzeko eta tratatzeko eskumena mankomunitateei eskualdatuta dago, zerbitzu hori ematea Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoari dagokio, eta bertan parte hartzen du San Marko Mankomunitateak.

Azken batean, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak konpondu behar du hondakinen arazoa.

4.- *Udalean aztertu al duzue berriz ere hondakinen kudeaketa berreskuratzeko aukera? Aztertu al duzue zer eragin eta ondorio izango lituzkeen hondakinak kudeatzeko eskumena berreskuratzeak?*

Hondakinen Partzuergoak jakinarazi duen moduan, Ingurumen Zentroa egikaritzeak onura ekonomikoak eta sozialak ekarriko ditu, eta baita ingurumen onurak ere, egungo egoerarekin alderatuz.

Pasaia, 2017ko azaroaren 14ean



Izaskun Gómez  
Pasaia Alkatea

### Respuesta al escrito de requerimiento a la alcaldesa de Pasaia

Según información que aporta el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, le informo:

El Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, esta compuesto por todas las Mancomunidades del Territorio y la Diputación Foral de Gipuzkoa, y se encarga de la gestión “en alta” para el tratamiento de los residuos en el territorio. Es decir, el Consorcio gestiona el conjunto de actuaciones e infraestructuras una vez que la Mancomunidades han depositado los residuos en las Estaciones de Transferencia.

Las Mancomunidades, siendo miembros de la Asamblea General del Consorcio, pagan una tarifa al Consorcio por la prestación del servicio que reciben, y después es cada Mancomunidad quien se encarga de cobrar a cada municipio. Dicha tarifa se aprueba por los entes consorciados, es decir, por las distintas Mancomunidades y la Diputación Foral de Gipuzkoa en la asamblea del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa.

Por otro lado, conviene precisar que las pérdidas económicas y el agujero económico derivado de la gestión del anterior ejecutivo foral en esta materia, ha llevado a Gipuzkoa modificar el modelo gestión inicialmente previsto, pasando de una gestión directa a un modelo de gestión indirecto.

De esta forma, ante la imposibilidad de gestionar directamente, es una UTE concesionara la que se hace cargo de la inversión del Centro Medioambiental de Gipuzkoa CMG-I (que comprende una Planta de Valorización Energética y también una Planta de Tratamiento Mecánico Biológico). Desde el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa se abonará un canon de 23,6 millones de euros anuales durante la vigencia del contrato que es de 32 años.

Ello supondrá, además de solucionar definitivamente el problema que tenemos con los residuos, un ahorro significativo del gasto que actualmente esta soportando el Consorcio, (actualmente el gasto es de 37 millones de euros).

Preguntas:

1.- *¿El Ayuntamiento qu Ud. Preside ha acordado en acto público la aprobación o rechazo de dicho contrato?*

Es la Mancomunidad de San Marcos de la que formamos parte, junto con el resto de entes consorciados, quienes aprobaron en la asamblea la adjudicación del CMG-I.

2.- *En caso de que se haya producido algún debate o acuerdo en referencia a la aprobación o rechazo de las graves consecuencias que tendrá dicho contrato tanto para la ciudadanía como para el ayuntamiento, ¿Qué postura han adoptado los partidos y representates políticos de este ayuntamiento respecto a este grave asunto?*

Este Ayuntamiento respeta las decisiones que las Mancomunidades, dentro de su condición de miembros de la Asamblea General del Consorcio de Residuos, han adoptado democráticamente para la solucionar el problema de la gestión de los residuos, cumpliendo de esta forma la normativa vigente así como los mandatos reiterados de las Juntas Generales de Gipuzkoa.



3.- *El Ayuntamiento ha advertido a la ciudadanía mediante la prensa u otras formas de difusión de las consecuencias y detalles de este contrato que les atará hasta 2051?*

La competencia de la recogida y el tratamiento de los residuos esta transferida a las Mancomunidades, y la prestación del servicio corresponde al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa en la que participa la Mancomunidad de San Marcos.

En definitiva, es el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa el que tiene que resolver el problema de los residuos.

4.- *Habéis estudiado en el Ayuntamiento la opción de recuperar de nuevo la gestión de los residuos? ¿Habéis estudiado qué efectos y consecuencias que tendría la recuperación de la competencia para la gestión de residuos?*

Tal y como ha informado el Consorcio de Residuos los efectos de la ejecución del Complejo Medioambiental en su conjunto traerá beneficios económicos, sociales y también medioambientales en comparación con la situación actual.

Pasaia, a 14 de noviembre de 2017.



Izaskun Gómez  
Alcaldesa de Pasaia